

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

| | | | |
|---|---|--------------|-----|
| PRESTAKUNTZA-ATALA | INPRIMAGAILUEN KONPONKETA | Iraupena | 70 |
| | | Baldintzatua | |
| Kodea | UF0865 | | |
| Lanbide-arloa | INFORMATIKA ETA KOMUNIKAZIOAK | | |
| Lanbide-eremua | Sistemak eta telematika | | |
| Profesionaltasun-ziurtagiria | Sistema mikroinformatikoen muntaketa eta konponketa | Maila | 2 |
| Prestakuntza-modulua | Ekipamendu mikroinformatikoaren konponketa | Iraupena | 180 |
| Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak | Ekipo eta osagai hardware mikroinformatikoen konponketa eta zabalkuntza | Iraupena | 80 |
| | Ekipo mikroinformatikoetako matxura logikoen konponketa | | 30 |

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0954_2 EKIPAMENDU MIKROINFORMATIKOA KONPONTZEA ETA ZABALTZEA gaitasun-ataleko LB4 lanbide-burutzapenarekin.

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Inprimagailuak konpontzeko prozedurak aplikatzea erreminta espezifikoak erabilia, martxan jartzeko, emandako zehaztapenei jarraiki.

EI1.1 Merkatuan gehien erabilitako inprimagailu-motak identifikatzea, haien arteko ezaugarriak bereizita, zehaztaperen teknikoaren arabera.

EI1.2 Inprimagailu-mota bakoitzaren blokeak deskribatzea, baita osagaien funtzionamendua ere, bakoitzaren zehaztaperen teknikoaren arabera.

EI1.3 Inprimagailu-mota bakoitzaren funtzionamendu-akatsak ezagutzea akatsa eragiten duten zatiak aldatzeko, inprimagailuaren ezaugarriak kontuan izanda eta ezarritako prozedurari jarraiki.

EI1.4 Kontsumigarriak, horien motak eta aldatzeko prozedurak identifikatzea inprimagailuetan matxura posibleak detektatu eta konpontzeko, inprimagailuen ezaugarri teknikoak kontuan izanda.

EI1.5 Inprimagailuetan matxurak konpontzeko erabiltzen diren prozedurak bereiztea, zehaztaperen teknikoak kontuan izanda.

EI1.6 Behar bezala zehaztutako kasu praktikoetan, inprimagailua konpontzea martxan jartzeko, emandako zehaztaperen teknikoari eta prozedurei jarraiki:

- Inprimagailuaren hutsegitearen arrazoia identifikatzeko ezarritako probak egitea.
- Hutsegitea eragin duten osagaiak identifikatzea.
- Osagaia konpontzea edo aldatzea, edo matxura goragoko erantzukizun-maila bati jakinaraztea, beharrezkoa bada.
- Funtzionamendu-probak egitea inprimagailuak funtzionatzen duela egiaztatzea.
- Egindako jarduerak eta lortutako emaitzak dokumentatzea ezarritako formatu eta plantillak erabilia.

EI1.7 Lotutako dokumentazio teknikoaren interpretatzea, sektorean ohikoena den atzerriko hizkuntzan editatuta badago ere, periferikoaren konponketan laguntza gisa erabilia.

Edukiak

1. Inprimagailuak.

- Inprimagailuak.
 - Oinarrizko parametroak.
 - Orria deskribatzeko lengoaiak.
 - Konexio-interfazea.
- Inprimagailu-motak. Ezaugarriak eta aldeak.
 - Inpaktu-inprimagailuak.
 - Tinta-inprimagailuak.
 - Laser-inprimagailuak.
- Marka eta modelo ohikoenak.

2. Elementu kontsumigarrien manipulazioa eta aldatzea.

- Motak eta ezaugarriak.
 - Tinta-kartutxoak.
 - Toner-kartutxoak.
 - Paper-formularioak

- Etiketa itsaskorren orriak.
- Gutun-azalak.
- Beste batzuk.
- Elementu kontsumigarrien kontserbazioa.
- Elementu kontsumigarriak aldatzeko prozedurak.
- Segurtasuna elementu kontsumigarriak aldatzeko eta manipulatzeko prozeduretan.

3. Inprimagailu matrizialen konponketa

- Inprimagailu matrizialak. Funtzionamendua eta xehetasun teknikoak.
- Segurtasuna inprimagailu matrizialen maneian.
 - Oharrak eta hartu beharreko neurriak. Sinbologia.
 - Segurtasun-argibideak instalazioan, mantentzean, paperaren manipulazioan eta inprimagailuaren maneian.
- Inprimagailu matrizial baten piezak.
- Zehaztapen mekanikoak, elektronikoak, elektrikoak eta ingurumenekoak.
- Bloke funtzionalak eta horien osagaien funtzionamendua.
- Kontsumigarriak.
 - Kontsumigarri-motak.
 - Orri solteak.
 - Paper jarraitua.
 - etiketak, inprimakiak kopiarekin, gutun-azalak. etiketak, inprimakiak kopiarekin, gutun-azalak.
 - Kontsumigarriak aldatzea.
 - Zinta-kartutxoak aldatzea.
 - Paper jarraitua aldatzea.
- Prebentzio- eta zuzenketa-mantentzea.
 - Inprimagailuaren garbiketa.
 - Lubrifikazioa.
 - Arazoak detektatzea.
 - Akats-adierazleak.
 - Egoeren monitoreo.
 - Auto testa.
 - Iraulketa hexadeximala.
- Arazoen konponketa.
 - Elikadura-arazoak.
 - Papera kargatzeko edo aurreratzeko arazoak.
 - Arazoak inprimatzeko posizioan.
 - Inprimatze-arazoak edo inprimatze-kalitatearenak.
 - Sare-arazoak.
 - Paper-buxaduren soluzioa.
 - Arazoak aukerazko osagarriekin.
 - Mantentze-kiten aldaketa.
- Inprimagailuaren garraioa.

4. Tinta-injekzioko inprimagailuen konponketa.

- Segurtasuna tinta-injekzioko inprimagailuen maneian.
 - Oharrak eta hartu beharreko neurriak. Sinbologia.
 - Segurtasun-argibideak instalazioan, mantentzean, tinta-kartutxoaren manipulazioan eta inprimagailuaren maneian.
- Tinta-injekzioko inprimagailu baten piezak.
- Zehaztapen mekanikoak, elektronikoak, elektrikoak eta ingurumenekoak.
- Bloke funtzionalak eta horien osagaien funtzionamendua.
- Inprimagailuaren garbiketa.
- Lubrifikazioa.
- Kontsumigarriak.
 - Kontsumigarriak aldatzea.
 - Tinta-kartutxoaren egoera egiaztatzea kontrol-panelaren, argi-adierazleen edo inprimagailuaren kontrolagailuaren bidez.
 - Tinta-kartutxoak aldatzea.
 - Mantentze-kutxa aldatzea.
- Prebentzio- eta zuzenketa-mantentzea.
 - Injektoreen azterketa.
 - Injekzioko buruaren garbiketa.

- Injekzioko buruaren lerrokatzea.
- Inprimagailuaren garbiketa.
- Arazoen konponketa.
 - Arazoaren diagnostikoa.
 - Inprimagailuaren egoera egiaztatzea.
 - Paper-butxadurak.
 - Arazoak inprimatze-kalitatearekin.
 - Zenbait inprimatze-arazo.
 - Paperak ez du aurrera egiten.
 - Inprimagailuak ez du inprimatzen.
 - Bestelako arazoak.
- Inprimagailuaren garraioa.

5. Laser-Inprimagailuen konponketa

- Segurtasuna laser-inprimagailuen maneian.
 - Oharrak eta hartu beharreko neurriak. Sinbologia.
 - Segurtasun-argibideak instalazioan, mantentzean, toner-kartutxoaren manipulazioan, inprimagailuaren maneian, laser-erradiazioan eta ozono-segurtasunean.
- Laser-inprimagailu baten piezak.
- Zehaztapen mekanikoak, elektronikoak, elektrikoak eta ingurumenekoak.
- Bloke funtzionalak eta horien osagaien funtzionamendua.
- Kontsumigarriak.
 - Kontsumigarriak aldatzea.
- Prebentzio- eta zuzenketa-mantentzea.
 - Inprimagailuaren elementuen garbiketa.
 - Lubrifikazioa.
 - Toner-kartutxoak aldatzea.
 - Unitate fotoeroalea aldatzea.
 - Unitate fusorea aldatzea.
 - Toner erabiliaren kolektorea aldatzea.
 - Arazoen konponketa.
 - Arazoaren diagnostikoa.
 - Inprimagailuaren egoera egiaztatzea.
 - Paper-butxadurak.
 - Inprimagailuaren egoera-orri bat inprimatzea.
 - Funtzionamendu-arazoak.
 - Arazoak kopia inprimatuarekin.
 - Kolorezko inprimatzearen arazoak.
 - Arazoak inprimatze-kalitatearekin.
 - Zenbait inprimatze-arazo.
 - Memoria-arazoak.
 - Bestelako arazoak.
- Inprimagailuaren garraioa.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua izatea.
- 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-erlo eta -eremu bereko 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestakuntza-atal hau egiteko gainditua izan behar du UF0864 Ekipo mikroinformatikoetako matxura logikoen konponketa.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Sistema mikroinformatikoen muntaketa eta konponketa

